

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

9/2020 prozedura laburtuan epatzeko iragarkia

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten da errekurtsua jarri dela eta espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegira bidali dela, 9/2020 prozedura laburtua, Antonio González Pérez jaunak eskatuta, Gizarte politiketako diputatuaren urriaren 29ko 28/2019 Foru Aginduaren aurka, zeinak ezetsi egiten duen Administrazio Orokorreko eskalan karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuari dagokion gaindituen behin betiko zerrendaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko lan-eskaintza publikoaren administrazio-azpieskalan.

Ohartarazten da ezen iragarki honen bidez epatu egiten dela prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 5a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS